



SEXU JAZARPENARI STOP!

Azaroaren 25a emakumeon indarkeria sexistaren aurkako eguna dugu. 2008. urtean oraindik ere, zoritxarrez, egun hau aldarrikatu beharrean aurkitzen gara.

Badakigu emakumeok pairatzen dugun indarkeria sexista mota ezberdinetan agertzen dela nahiz eta askok etxeko eremuan soilik kokatu nahi diguten.

Errealitate gordinak erakusten digu bizitzako esparru guztietan, etxean, lanean, kalean... oraindik emakumezkoak gutxietsiak, diskriminatuak eta erasotuak izaten jarraitzen dugula.

2008ko kronikari begiratzuz gero, beldurgarria da. Emakumeak erasotuak izan dira, etxean, kalean, jaietan, lantokietan, ikastetxeetan. Erasoa mota guztietakoak izaten dira: tratu txarrak, bortxaketak, sexu-jazarpena, hilketak (Euskal Herrian dagoeneko 5 emakume hil dituzte).

Emakumeon aurkako indarkeria sexistaz hitz egiten denean, ezin dugu testuinguruz kanpo ulertu, alegia, esan gabe utzi honelako egoerak erreproduzitzen direla bizi garen jendartearen eredu patriarkala delako. Hau da, sustrai sozio-politiko duen arazo estruktural larri baten aurrean aurkitzen gara, zeinak gizon emakumeen arteko harreman eredu suntsitzailea sustatzen duen.

Lan munduari dagokionez gauzak ez dira aldatzen, oraindik ere emakumezkoen aurkako mota guztietako erasoak aurkitzen ditugu. Izan ere, emakumeentzat lan munduak diskriminazio mundua izaten jarraitzen du: sarbideak, lanbideak, lanpostuak, soldata, lan baldintzak, etxeko lana, zainketa lana...

Emakumeok egoera eta baldintzarik txarrenak pairatzen ditugu eta honek ere sexu jazarpena errazten du.

Argi dago instituzioetatik bideratzen diren politikak ez direla behar bezain eraginkorrak. Askotan, LABek salatu duenez, itxurakerian jauzten dira.

LAB aspalditik ari da sexu-jazarpenaren kontra modu berezian borrokatzen. Urte honetan inoiz baino sexu jazarpen salaketa gehiago jaso dugu sindikatuan. Honek adierazten digu arazo honen larritasuna. Halere, gai honetaz dagoen puntu ahulena salaketarako urratsean datza, oraindik ere gertatzen diren erasoetatik gutxiengoa baita salatzen dena. Horren zergatia erasotuak diren emakumeek bizitzen dituzten beldurretan datza: ulertezintasuna, babesgabezia eta erruduntasun sentimendua.

Sexu jazarpenaz dagoen itxurakeriarekin amaitu behar dugu. Ezin ditugu egoera hauek onartu. Sexu jazarpena ezabatzeke denon laguntza beharrezkoa da egungo konplizitate jarrerekin bukatzeke.

Erronka horretan eragile sozial eta politikoen jokabideak askoz ere eraginkorragoa izan beharko luke, baita eredugarria ere. Hala ere, sindikalgintzak berebiziko erantzukizuna duela azpimarratu nahi du LABek, eta ildo horretan, gure ustez, osagarriak diren honako bi lan ardatz hauek aurrera eramatea beharrezkoa ikusten du:

-Prebentzioa, sexu jazarpenik egon ez dadin estrategia martxan jarritz

-Erantzuna, sexu jazarpenaren aurrean behar diren neurriak gauzatzuz. Horretarako, sexu jazarpenari aurre egiteko, LABen daukagun protokoloa lan tresna bihurtu nahi dugu.

**Azaroak 25, kontzentrazioa Instituto Navarro para la Igualdad 12:00etan.
Instituzioei erantzukizuna exijitu, sexu jazarpenari stop!**